

# **GIPUZKOAKO MUGIMENDU EKOLOGISTAK ALDUNDIAREN AURRERAPASUA ONGI BALORATZEN DU, ETA IZEN-ALDAKETATIK HARATAGO, NATUR KONTSERBAZIOAKO POLITIKETAN DITUEN ESKUMENAK GARATZEN HASTEAN ESKATZEN DIO**

**Prentsaurreko honen helburua Gipuzkoako 16 natur talde eta erakunde ekologistok Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzarekin, eta zehatzago esanda, natur kontserbazioari eta bioaniztasunari lotutako gaiekin, legegintzaldi honetan izan dugun harremanaren balorazioa egitea da. Bide batez, Berrikuntza, Landa-Garapena eta Turismo Sailean berriki egon den kargu aldaketa baloratzea ere.**

Bilduk Foru Aldundiko agintaritza aldatetaren izenean hartu zuela ikusita, Gipuzkoako mugimendu ekologistak elkarlanean aritzeko apustua egin zuen. Hamasei natur talde elkartu eta lanean hasi ginen Foru Aldundiaren arlo honetako Zuzendaritzaren kudeaketa beste norabide batean jartzeko.

Hasieratik izan da bidea aldapatsua. Batetik, Sailen banaketa egiterakoan ingurumena bioaniztasuna eta natur kontserbaziotik bereizi zen, azken hau jarduera ekonomiko gisa planteatuz; bestetik, karguen izendapenak ikustearekin batera adierazi genuen zailtasunak aurreikusten genituela aldatetarako. Hain zuzen, egurgintzako interes pribatu jakinek bioaniztasunaren zaintzarekiko lehentasuna izaten jarrai zezaketelakoan. Hala ere, aurrera egin genuen, eta azken urte hauetan Gipuzkoako Foru Aldundian inoiz diseinatu eta garatu ez den natur kontserbazioaren aldeko plangintza egiteko oinarriak ezartzen saiatu gara.

Proposamen ideologiko eta tekniko serioak, gaitasuna eta elkarrizketarako borondatea badituela erakutsi dugu. Ondare naturalaren kontserbazioa, defentsa eta berreskurapena ahalbidetuko duen kudeaketa-eredua ezartzeko bost txosten aurkeztu ditugu, eta dozena inguru bilera egin ditugu gure ikuspegiaren beharra eta zilegitasuna erakusteko. Bi dira ozen egin ditugun aldarrikapenak: (1) naturaren kontserbazioa eta ustiapena argi bereiztea aurrekontuetan, naturaren kontserbazioa helburu estrategiko nagusia bilakatuz, eta (2) natur ondarearen ustiapenaren plangintzan eragile sozialen (naturazaleak eta naturaren babeserako ekintzaileak) eta Udalen hitza aintzat hartzea.

## **EGUR-LOBBYen ERAGINA**

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritzak, nagusiki, bi *lobby*en interesei erantzuten die, gure iritziz: (1) egurraren negozioan interesak dituzten baso-jabeen elkarteari (GEBE), eta (2) ehiza-federazioari. Baso zaleek eta ehiztariak beti izan dituzte ateak irekita Gipuzkoako Foru Aldundian, eta eurak baldintzatu dituzte sail honen norabidea, aurrekontua eta politika publikoak. Arlo horretan interes zuzena duten taldeak izanda, ulertzekoa da euren ikuspuntua kontuan hartzea. Baina, ezin da ahaztu guztiona den ondare naturala dela, biek ala biek, ustiatzen dutena, eta sail horrek kudeatu beharko lukeena: ibaiak, ura, lurzorua, kalitatezko paisaiak, basa

fauna eta flora, basoak, larreak, beste habitat naturalak, prozesu ekologikoak ... eta horretarako aurrekontu publikoak. Hori da Aldundiko arduradunei adierazten dieguna: guztiona den eta lehentasunez babestu beharko litzatekeen ondare naturala eta baliabide ekonomiko publikoak, gutxi batzuen interes pribatuen menpe jarri dituela. *Lobby* horien kudeaketa-eredua ez baita jasangarria, ez behintzat naturazaleon ikuspegitik.

### **BASO-KONTSEILU BERRIAN NATUR TALDEAK KANPORATUTA**

Baso zaleekin zuzena zen lehendik ere harremana, eta orain Baso Kontseilua sortu da baso zaleen elkartearen (GEBE), nekazal sindikatuen (EHNE, ENBA, zeinak lurjabe diren heinean, ezin dugun ahaztu ustiatzaileak direla) eta egurraren eraldaketa enpresen ordezkariekin. Natur taldeak ere partaide gara, baina azken bileran kanporatuak izan ginen. Aipatzekoa da sailean bertan lanean ari diren teknikariek, eta Mendi Ingeniaritza Eskolaren izenean kontseilu honetara aurkeztu diren agiriak arlo honetan egiten den kudeaketa nola justifikatzen duten. Baso-politika intentsiboaren ardatza den pinuaren gainbehera, eta horri lotutako negozioa, ezbaian egonda ere, *status quo* hau, gure ustez lotsagarria dena, defendatu eta diru publikoa orain arte bezala banatzearen alde egiten ari diren lana harrigarria da, zinez, gure iritzian. Baina ulergarria, euren negozio pribatuak bide honetatik baino ez direla errentagarriak ulertzen bada.

Basogintza-sektoreko elkarrekin lantzen duten baso ustiapenaren eredua ez da jasangarria. Mendian irekitako ehunka kilometro pista, matarrasek eragiten duten higadura, espezie arrotzen monokultiboaren landaketak mendiak basamortu ekologiko bihurtzeak ... ez du zerikusirik naturaren kontserbazioarekin edo bioaniztasuna hobetzearekin. Eta ingurumena kaltetzen duten interes pribatu horiek guztiak, diru publiko lagunduta daude, naturaren kontserbaziorako diru-laguntzen bitartez. Horrela uler daiteke sektoreko interesatuek egungo egoera aldatzeko adierazten duten beldurra, ustiapen hauek errentagarriak izateko diru-laguntza publikoen premia baitute.

### **EHIZTARIAK KONTSERBAZIOAREN KONTURA**

Ehiztariak, lotura zuzena izan dute beti sail honetako arduradunekin. Ehiza-federazioari eta basojabeen elkarteari milioika euro eman zaizkie, horrela, diru publikoa jarduera pribatuetarako desbideratzen delarik diru-laguntza nominatiboaren bidez. Aitzakietako bat, nekazaritzan kalteak eragiten dituzten *piztiak* kontrolatzea ei da, baina hala balitz, diru-laguntza horiek nekazaritza sailetik bideratzea litzateke zentzuzkoena, gure ustez. Ehizaren inguruko kudeaketa naturazaleon bizkar (kontserbaziorako aurrekontuetatik) egin da.

### **PARTEHARTZE PUBLIKOA BERMATZEA: BIOANIZTASUNAREN MAHAIA OSATZEAREN ESKAERA**

Mendietako Zuzendaritzako parte-hartze publikoaren eredua (egurra, ehiza) *lobby*en mesedetara eraikita eta egokituta dago: interes korporatibistak dituzten gutxi batzuek erabakitzen dute gipuzkoarren dirua nola kudeatu. Esan bezala, *lobby* horiena ez ezik naturazaleon ahotsa ere arlo

honen kudeaketan aintzat hartzea izan da azken legealdi honetan egin dugun aldarrikapena. Horretarako, **Bioaniztasunaren Mahaia** sortzea eskatu dugu: guztion interesak ikusaraziko lituzkeen parte-hartze publikorako organo zabala egituratzea. Natur ondarea kontserbatzeko, ezinbestekoa da ustiapena eta kontserbazioa kontrajarriko dituzten begiradak eta diskurtsoak bateratzea. Bestela, natur ondarearen etengabeko galera pairatzen jarraituko dugu.

Mahai horrek, ordea, ez luke zentzurik bertan urteko (eta urteetako) plangintzak aztertuko eta eztabaidatuko ez balira. Hau ere ametsa da gaur gaurkoz. Iaz sail horretako arduradunek plangintza baten egitasmoa aurkeztu baziguten ere, ia urtebete beranduago ez da ezertan gauzatu, eta larriagoa dena gure ustean, ez du aurrekontuetan eragin.

### **AGINTALDI HONEK KALE EGIN DU**

Agintaldi honetan ez genuen miraririk espero, baina posible zen, eta uste dugu zilegi dela aldaketarako oinarriak ezartzea. Gure aldetik ahalegina egin dugu. Prozesu luze honetatik gauzatu dugun lorpenik handiena Gipuzkoako natur kontserbazioaren eta ekologismoaren ahotsa bateratzea izan da. Ezagutzen ditugun talde guztiak batu gara, eta guztion artean partekatzen dugun diskurtsoa harilkatu eta proposamen zehatzen bidez bideratu dugu Gipuzkoako Foru Aldundira. Ez du balio gizarte eragileen aldeko diskurtsoak egiteak, aurrean daudenean aintzat hartzen ez badira. Horrela sentitu gara, eta horrela adierazten dugu.

Urte hauetan naturaren kontserbazioak ez du ia lekurik izan Gipuzkoako Foru Aldundian, eta ondare naturalaren defentsan, zaintzan eta kontserbazioan aritu beharko luketenak naturaren ustiapena kudeatzen ari dira. Hutsa, lehen sektorearen onerako eta gizartearen onurarako balitz, baina horretarako ere ez, lehen sektoreak bizi duen gainbehera ikusita. Baina, eredu honek badu alternatibarik. Natur eremuen zaintzatik bestelako inbertsioak eta lanpostuak eragin daitezke. Ingurumen enpresetan, I+G+i-ak, turismo jasangarrian aukera berriak, natur behatokiak, azterketak, argazkilaritza-molde berriak (*birdwatching* taxuzko ekimenak), edota gizartean eta hezkuntzan barneratuak dauden natur eremuekiko tailerrak (zeinak nekazaritza-eredu berriekin uztartu daitezkeen) ...

Naturaren eta basa bizitzaren kontserbazioaren arloan argi dugu legealdi honek ez duela aldaketarako aukera handirik eman orain arte. Dena dela, txalotzekoa da Mendietako eta Natur Ingurune Zuzendariaren ordezkapena. Aldaketa horren hasiera bada, ongi etorria izan bedi. Baina, argi gera dadila, mendietako zuzendari berriarena bide baten lehen pauso gisa bakarrik uler dezakegula, eta jarraian helburuetan, planifikazioan eta organigraman aldaketak etorri beharko dutela, baita egun onartutako aurrekontu urrien tamainan eta norabide-aldaketa ere.

Zehazki, eta aurrekonturik ezean eragina sinbolikoa baino izango ez bada ere, legealdizaldi hau bukatu aurretik egin daiteke: Foru Aldundiko jabegokoak diren baso-eremuetan bioaniztasuna lehenetsiko duten plangintzak egin (monokultiboak kudeatzean natur balioen kontserbazioa lehenetsiz balizko errendimendu ekonomikoaren gainetik eta eremu horiek bertako espezieekin

birlandatuz), babestutako eremuetako plangintzak Kontserbazio Bereziko Lekuen plangintzetara doitu eta eremu horietarako aurrekontuak zehaztu, eta bukatzeko, Bioaniztasunaren mahaia sortu.

## BIDELAGUNAK IZATEKO PREST

Ez dugu egindako bidea ezkortasunetik bizi nahi. Prozesu honek Gipuzkoako natur eragileak biltzeko balio izan du, eta elkartuta jarraitzeko asmoa erakutsi dugu. Gure lana da denon ondarea den natur kontserbazioko politika publikoen defentsa egitea, noski, ingurumenarekin benetan bateragarria den jarduera ekonomikoa ere sustatuz.

Hala bada, Gipuzkoako Foru Aldundian ondare naturala, mendiak eta basa bizitza zaindu, kontserbatu edota berreskuratzeko bidean lana egingo duen arduradunik izendatzen bada, jakin beza bidelagun izango gaituela edo, bestela, aurrez aurre.

**Donostia, 2014ko apirilaren 5ean.**

**Orain arteko prozesuan parte hartu dugun, eta prentsaurreko hau sinatu dugun Gipuzkoako natur taldea eta talde ekologistak:**

Eguzki

Erkaxo Azpeitiko Natur Taldea

Haritzalde Naturzaleen Elkarte

Herrio, Orioko Natur Taldea

Itsas Enara Ornitologia Elkarte

Katamarrua, Zestoako Natur Taldea

Landarlan Natur Elkarte

Mutriku Natur Taldea

Okil Beltzak Elgoibarko Natur Taldea

Osina Natur Taldea

Ugatza Ornitologia Elkarte

Zumaiako Natur Taldea

Arkamurka Natur Elkarte

Ondarroa 12 milia

Berdeak

Ekologistak Martxan



## INFORMAZIO OSAGARRIA

Orain arte aurkeztutako txostenak eskuragarri dituzue gure blogean. Gurekin harremanetan jarri nahi baduzue, erabili [helbide elektronikoa hau](mailto:aisaregi@hotmail.com): aisaregi@hotmail.com, edo telefono hau: 655 722 399 (Aitor Leiza).

Hau da blogaren helbidea: [naturkon.blogspot.com.es](http://naturkon.blogspot.com.es)

## **EL MOVIMIENTO ECOLOGISTA DE GIPUZKOA VALORA POSITIVAMENTE EL PASO QUE HA DADO LA DIPUTACIÓN, Y MÁS ALLÁ DEL NUEVO NOMBRAMIENTO, EXIGE QUE EMPIECE A DESARROLLAR LAS COMPETENCIAS QUE TIENE ATRIBUIDAS EN LA CONSERVACIÓN DE LA NATURALEZA**

**El objetivo de esta rueda de prensa es valorar las relaciones que han mantenido en esta legislatura 16 grupos ecologistas y naturalistas de Gipuzkoa con la dirección de Montes y Medio Natural de la Diputación Foral de Gipuzkoa para tratar de colaborar en la mejora de la biodiversidad y la conservación del medio natural. Aprovechamos la ocasión para valorar el nuevo nombramiento del Departamento de Innovación, Desarrollo Rural y Turismo.**

Desde que Bildu accedió al Gobierno de la Diputación Foral de Gipuzkoa prometiendo un cambio de rumbo, el movimiento ecologista y conservacionista de Gipuzkoa apostó por un trabajo conjunto. En concreto, 16 grupos ecologistas y naturalistas empezamos a trabajar para potenciar ese cambio en la gestión que se realiza desde la Dirección de dicho Departamento.

El camino ha sido difícil desde el inicio. Para empezar, se separó el medio natural del Departamento de Medio Ambiente y se incluyó en Desarrollo Rural, reduciéndolo a una mera actividad económica; por otro, el nombramiento del director nos hizo prever que intereses privados del sector maderero prevalecerían a la conservación de la biodiversidad. Aun así, seguimos trabajando para establecer las bases para el diseño y desarrollo de un plan para la conservación de la naturaleza en Gipuzkoa, plan del que ha carecido, y carece todavía, esta Diputación.

Hemos dejado bien claro que además de tener capacidad para hacer propuestas ideológicas y técnicas serias, tenemos voluntad para el diálogo. Hemos elaborado cinco propuestas de gestión para la conservación, recuperación y defensa de la naturaleza, y hemos asistido a una docena de reuniones para exponer nuestro punto de vista. Básicamente, nuestras reclamaciones se resumen en dos propuestas: (1) desglosar en los presupuestos la conservación de la naturaleza y la explotación de los recursos naturales, primando claramente la conservación, y (2) tener también en cuenta a otras agentes sociales (naturalistas y conservacionistas) y a los Ayuntamientos a la hora de planificar la explotación del patrimonio natural.

### **LA INFLUENCIA DEL LOBBY MADERERO**

A nuestro entender, la Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG responde, abiertamente a los intereses de dos *lobbys*: (1) la Asociación de Propietarios Forestales de Gipuzkoa, con intereses obvios en el negocio de la madera, y (2) la Federación de caza. Ambos colectivos siempre han tenido abiertas las puertas de la Diputación, y son los que condicionan las políticas públicas, la gestión y los presupuestos de esta Dirección. Teniendo en cuenta sus intereses, es comprensible que pidan un trato favorable, pero no debemos olvidar que lo que unos y otros explotan es parte del patrimonio

natural, algo que debería gestionar esa Dirección como bien público o bien común de todos sus administrados: ríos, agua, suelo, la calidad del paisaje, fauna y flora silvestres, bosques, prados, hábitats naturales en general, procesos ecológicos..., y dirigir sus presupuestos a esos fines. Esto es lo que reclamamos a la Diputación, que el patrimonio natural y los recursos públicos dejen de estar supeditados a los intereses privados de unos pocos. Y más cuando, desde nuestro punto de vista, el uso que hacen esos *lobbys* del medio natural lo mantiene en el estado de degradación que todos podemos ver.

### **CONSEJO FORESTAL SIN ASOCIACIONES CONSERVACIONISTAS**

Recientemente se ha creado el nueva Consejo Forestal con la representación de los Propietarios forestales (GEBE), sindicatos agrarios (EHNE, ENBA a su vez propietarios forestales) y empresas de transformación maderera; colectivos que siempre han estado directamente relacionados con los gestores de la Diputación. Los colectivos naturalistas también formamos parte de este Consejo, pero en la última reunión fuimos excluidos. Resulta muy llamativo cómo justifican los técnicos de esa dirección la gestión que llevan a cabo en nombre de la Escuela de Ingenieros Forestales. La devaluación que ha sufrido el precio de la madera del pino (eje central en la política forestal intensiva), ha puesto contra las cuerdas la gestión forestal que se ha llevado estos últimos años y es impresentable, a nuestro entender, la defensa a ultranza del *status quo* actual y del reparto de las subvenciones públicas que se realiza desde esa Dirección. Aunque sea una de las pretensiones entendible desde el punto de vista del *lobby* maderero, ya que depende de esas subvenciones públicas.

La gestión forestal que dirige la asociación de propietarios y ejecuta la Diputación no es sostenible. Los miles de kilómetros de pistas que cruzan las laderas de los montes provocan desprendimientos de tierras cada vez más graves y frecuentes tras las lluvias; las matarrasas provocan la erosión del suelo, y los monocultivos con especies exóticas impiden el desarrollo de los ecosistemas y traen consigo plagas como la procesionaria... Todo ello está en las antípodas de lo que debería ser el mantenimiento de la biodiversidad y la conservación del medio natural, y empleando el dinero público que se debería invertir en la conservación del patrimonio natural. De ahí el interés del sector maderero para que todo siga igual, y nadie más que ellos influya en la gestión de los recursos económicos que se destinan a esta Dirección.

### **LOS CAZADORES A EXPENSAS DE LOS MEDIOS PARA LA CONSERVACIÓN DEL MEDIO NATURAL**

Los cazadores también han tenido una relación directa con los responsables de esta Dirección. La federación de caza, así como la Asociación de Propietarios forestales han recibido millones de euros, desviando el dinero público hacia actividades privadas mediante subvenciones nominativas. La excusa principal siempre ha sido la necesidad de controlar las poblaciones de animales que dañan los cultivos agrícolas. Pero aun aceptando esta una realidad, esas subvenciones deberían darse desde el

Departamento de Agricultura. La gestión cinegética de la Diputación se ejecuta a expensas de los naturalistas (con el dinero destinado al presupuesto de la conservación de la naturaleza).

### **GARANTIZAR LA PARTICIPACIÓN PÚBLICA MEDIANTE LA MESA DE LA BIODIVERSIDAD**

La participación pública de la Dirección de Montes y medio Natural responde a los intereses de los *lobbys* ya citados: unos pocos con intereses corporativistas deciden la gestión de todos los guipuzcoanos. Hemos pedido por activa y por pasiva en esta legislatura que se nos tenga en cuenta al mismo nivel. Para ello, reclamamos que se cree la **Mesa de la Biodiversidad**, órgano para la participación pública en el que estarían representados los intereses de todos los colectivos. Para la conservación del patrimonio natural, es imprescindible contraponer los discursos y puntos de vista de los conservacionistas y explotadores del medio natural. De lo contrario, estamos abocados a una continua pérdida de la biodiversidad.

Esa mesa no tendría sentido si no se discutieran en ella los planes y presupuestos anuales (interanuales); algo inimaginable hoy por hoy. El año pasado se nos presentó por primera vez desde esa Dirección el borrador de un plan para este año en vigor, pero casi un año después, no sabemos qué es de aquel borrador, y lo que es peor, no se ha tenido en cuenta en los presupuestos de este año.

### **LEGISLATURA FALLIDA**

No esperábamos milagros en esta legislatura, pero creíamos posible, y creemos legítimo, establecer bases para el cambio. Lo hemos intentado. El mayor logro de este largo proceso ha sido unificar la voz y la mirada de los naturalistas y ecologistas de Gipuzkoa. Hemos trabajado conjuntamente todas las asociaciones, articulando un discurso que compartimos todos y planteando propuestas a la Dirección de Montes y Medio Natural de la DFG. No es justo apelar a la colaboración de los agentes sociales si se les ningunea cuando responden a la llamada. Así nos hemos sentido y así lo declaramos.

La conservación de la naturaleza no tiene lugar en la Gestión de la DFG. Los responsables de la defensa y cuidado del patrimonio natural se han dedicado a la explotación de los recursos naturales. Entendible, si hubiera servido para potenciar el sector agrario y por ende, se hubiera gestionado por el bien de la sociedad. Pero no hay más que ver la realidad del sector primario para denunciar este despropósito. Este modelo de gestión tiene alternativas. Desde la defensa del medio natural se pueden generar nuevas inversiones y puestos de trabajo. En las empresas medioambientales, I+G+I, turismo sostenible, observatorios naturales, investigaciones, nuevas modalidades de ocio relacionada con la fotografía (*birdwatching*), talleres sobre el medio natural (relacionados con nuevos modelos de producción ganadera y o agrícola)...

Tenemos claro que ésta es una legislatura fallida en el ámbito de la conservación de la naturaleza y la biodiversidad, no ha servido para el cambio. Pero, aplaudimos la destitución y nuevo nombramiento

del Director de Montes y Medio natural. Bienvenido sea el cambio, pero si con ello se cambian los objetivos, la planificación y el organigrama de esa Dirección, así como los presupuestos.

A estas alturas del año y de la legislatura, el cambio no puede ser más que simbólico, pero aun así, se pueden llevar a cabo: (1) la planificación de la gestión de las masas forestales con titularidad pública, especialmente foral, priorizando claro está la defensa de la biodiversidad y prohibiendo técnicas de extracción agresivas, (2) ajustar los planes de los espacios protegidos a los ZEC ya declarados o en vías de ello, y (3) crear la Mesa de la Biodiversidad.

## DISPOSICIÓN PARA ACOMPAÑAR EN EL VIAJE

No queremos recordar esta vivencia desde el pesimismo. Este proceso ha unificado a las asociaciones naturalistas y ecologistas de Gipuzkoa, y tenemos la intención de seguir andando por el camino iniciado. Es nuestra labor defender el patrimonio natural y las políticas públicas de conservación de la naturaleza, y a su vez, las actividades económicas compatibles con la conservación de los recursos naturales.

Por ello, queremos hacer saber a los responsables y gestores que quieran trabajar en la defensa, conservación o recuperación del patrimonio natural, los montes o la vida silvestre, que nos tendrán a su lado. De lo contrario, tendremos que seguir en frente.

**Donostia, 5 de abril del 2014.**

**Hemos participado en el proceso descrito y firmamos la presente convocatoria de prensa los grupos naturalistas y ecologistas:**

Eguzki  
Erkaxo Azpeitiko Natur Taldea  
Haritzalde Naturzaleen Elkarte  
Herrio, Orioko Natur Taldea  
Itsas Enara Ornitologia Elkarte  
Katamarrua, Zestoako Natur Taldea  
Landarlan Natur Elkarte  
Mutriku Natur Taldea  
Okil Beltzak Elgoibarko Natur Taldea  
Osina Natur Taldea  
Ugatza Ornitologia Elkarte  
Zumaiako Natur Taldea  
Arkamurka Natur Elkarte  
Ondarroa 12 milia  
Berdeak  
Ekologistak Martxan



INFORMACIÓN COMPLEMENTARIA



Los informes presentados hasta la fecha están disponibles en nuestro blog. Para ponerse en contacto con nosotros pueden usar [esta dirección de correo](mailto:aisaregi@hotmail.com): aisaregi@hotmail.com o bien este teléfono: 655 722 399 (Aitor Leiza).

El blog: [naturkon.blogspot.com.es](http://naturkon.blogspot.com.es)